



Jose Inazio Basterretxea

♦ EHUko IRAKASLEA

Arte et Marte

JAINKOAREN ZERUAZ diharduelakoan, mundu biran ari garenon bizitzaz hitz egin du erlijio katolikoaren hierarkiak mendetan; eta gizakiaren pausoak eta norabideak arautzeko legeak idatzi, begi bat goikoari begira eta bestea parez parekoari.

Zeruaren aitzakian Elizak hartu dituen erabaki *lur-tarren* baitan, usu identifikatu dira politika eta erlijioa, gerra eta erlijioa, boterea eta erlijioa, pertsonalismoak eta erlijioa... jazarpena, mehatxua, kondena, sua eta erlijioa... Erromak egin ohi duen modu bertsuan aritu dira Lurraren azalean erlijio ugari; hartara, katolikoena ez da salbuespen.

Frantzisko aita santua Vatikanon aukeratu zutela igaro dira egunak, hilabeteak eta urteak. Egin du euri eta sargori, elur eta haize.

Barearen atzetik etorri da ekaitza. Eliza erromatarren aurreko politikarekin hautsi du Frantziskok. Ez du jainkoaren zeruarekin hautsi, haren ordezkari

lurtar zenbaitekin baizik, aurreko *status quo* delakoaren urloak iratzartu eta inertiak iraultzeko.

Artoski eta indartsu ari da aita santua, *Arte et Marte*. Itxura batean, organigrama katolikoa ari da arazten Jorge Mario Bergoglio Sívori; eta Kardinalen Kontseilua lagun, Kuria Erromatarra berriztatzen eta eguneratzen.

Eliztar jendearen eta publiko orotarikoaren aurrean azaltzeko, aingeruen sexua baino, Frantziskok gogoan hartu ditu ekologia, garapen jasangarria, abortua, sexua, Kuba eta Estatu Batuen arteko harreman zaila, Kolonbiako gerra zibila...

Urte biko jardunean, mundura hurbildu du aita santuak beste batzuek urrundutako ametsa. Eta mundua bilakatu zero eta jainko. Hala diote horretaz dakitenek.

Etxe barrura begira, Frantziskok badu nondik ginarrak eta erratzak pasa. Pederastia-salaketak ez dira amaitzen. Misoginia ez da gaunditzen. Erabakiguneen demokratizazioa ez da azaltzen. Vatikanoren zirrikitu ekonomikoak ez dira argitzen...

Wojtyla poloniar eta Ratzinger alemaniarraren agintaldi eskuindarrek eragindako diaspora katolikoa biltzen saiatu beharko du oraingo aita santuak, gainerako sinestunak bazterrean utzi gabe. Errape askotako esneak jetzi beharko ditu kaiku berera aita santuak.

Fedea, indarra eta lagun asko ditu nahitaezko Bergogliok bidean aurrera egiteko, ez baitzaie autopsiarik egiten Erromako gotzainei mundu hau uzten dutenean bestera joateko. ■

*Urte biko jardunean,
mundura hurbildu du
aita santuak beste batzuek
urrundutako ametsa.
Eta mundua bilakatu
zero eta jainko.
Hala diote horretaz dakitenek*



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com